

# Christophorus Kinder und Jungendchor de Altensteig en Errenteria

Del 4 al 8 de Julio estará con nosotros, en Errenteria, el Christophorus Kinder und Jungendchor de la localidad alemana de Altensteig. Nuestros coros tuvieron la oportunidad de conocerse en el festival de Castelnaudary en el LLenguadoc. Fruto de esta relación, Orereta Abesbatza viajará del 4 al 9 de diciembre a Alemania para participar como coro invitado en los conciertos de navidad de Alstensteig.

Los jóvenes alemanes llegarán el 4 de julio y se alojarán en familias de Errenteria. Las chicas y chicos conocerán nuestro país, con salidas a Bilbao, Hondarribia, Donostia... Y junto a ellos trabajaremos conjuntamente el repertorio coral. Conjuntamente con Orereta Txiki, Orereta y Oinarri, el director de Christophorus Kinder und Jungendchor, Wolfgang Weible, trabajará un repertorio de canciones alemanas y austriacas, mientras que con nuestro director, Imanol Elizasu, trabajaremos un repertorio de obras de Francisco Escudero y Eva Ugalde.

Sobre la base de este trabajo, el domingo 8 de Julio ofreceremos un concierto en la Parroquia de Andra Mari de Fátima, en el que el coro alemán tendrá un protagonismo especial, para cantar conjuntamente con nuestros coros jóvenes en la culminación del concierto.

# Bukatu da kurtsoa, gora kurtso berria!

Beste kurtso bat joan zaigu, emanaldiz eta emozioz betetako kurtsoa. Ez dugu aspertzeko astirik izan: Xexili eta Alzako kontzertuak, Gabonetako kontzertu eta lehiaketak (Orereta eta Orereta txiki urrezko garaikurra lortu zuten), Elkar disketean grabaketa, Oñatiko ganbara txikirekin eta Manlleuko abesbatzarekin elkartrukaketak, Musikasten amaiera kontzertua, herriko zazpi ikastetxetan abesbatza kanpaina, Koldo Mitxelena Institutuko diploma banaketan parte hartzea... eta hori, lagun alemanak iritsi aurretik!

Urte oparoa benetan, lanez bete. Eskerrak gure haur eta gazteei, familiei, Andra Mari ko partaideei eta ondoan izan zaituztegun pertsona guzti guzteei, zuen laguntza eta hausporik gabe, hau dena ezinezkoa izango litzateke eta. Errenteriako zazpi ikastetxeei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien atak berriro ireki eta abesbatzaren zurrunbiloa beren ikasleengana iristeko aukera emateagatik.

Datorren kurtsoarako egitasmo berriak ere bistan ditugu. Gure eguneroko lanean musika mintzairak bere tokia hartuko du, horrela, gure haur eta gazteek musika hezkuntza integral, oso bat jasoko dute. Azaroan, Albert Alcaraz "Zelaietakua" eta Julio Blascoren "Dialogar" obrak estreinatuko ditugu azaroko Xexili kontzertuan. Abenduan Alemaniara irteera, Altzan kontzertua, gabon lehiaketa ... eta tira, proiektu berriek bizia hartuko dutela dudarik ez dugu!



7

Errenteria 2012ko uda

BERRIPAPERA

UDA KO AGENDA

**Uztailaren 8a**  
Altensteig-ko (Alemania) Kinder und Jugendchor, Orereta Txiki, Orereta-Oinarri Fatimako Parrokian A.M.Ak antolatua

**Abuztuaren 17a**  
Andra Mari Donostiako Hamabostaldian Kursaalaren F. Escuderoaren ILLETA

**Urriaren 6a**  
Andra Mari Bergaran Organo Erromantikoko zikloa

**Urriaren 7a**  
Andra Mari Loiolan Organo Erromantikoko zikloa

**Kurtso berrirantz**  
Udaldiko emanaldi handietara eta oporraldietara jo dugu gure abesbatzaren sortzaileari Jose Luis Ansorenari abesteko ohorea izan ondoren, ekainaren 21an, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria eman zitzaion ekitaldian. Udaldiko atsedean eta lan aldia kurtso berria begi bistan dugula. Etengabeko koda honetan, Musika Tailerrak, eta Orereta Txiki, Orereta eta Oinarri abesbatzek irailaren 10an hasiko dute ikasturtea. 6 eta 17 urte bitarteko berrehun neska mutiletik gora ekingo diote abesbatza prestaketa lanari. Hor dugu Andra Mari Abesbatzaren geroa eta gure oinarrietako bat.

## ESCUDEROAREN ILLETA MUSIKA HAMABOSTALDIAN


Donostiako Musika Hamabostaldiak bere 73. edizioan oroitzen ospakizunen atalean, berebat gogoratuko da Francisco Escudero zarautzar musikagilearen irudia eta obra bere jaiotzaren mendeurrenean. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta gure Andra Mari Abesbatzaren eskutik abuztuaren 17an etorriko da Kursaalera programatu den bigarren emanaldi sinfoniko hau. Pascal Rophé maisuaren batutapean, Jose Manuel Tifek zuzentzen gaituela, Francisco Escuderoaren "Illeta" oratorioa interpretatuko dugu, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin esku esku, maisua bere jaiotzaren mendeurrenean omenduz. Illetaren emanaldian José Manuel Díaz izango da baritonoa. Programa Escuderoaren maisu izan zen Paul Dukasekin eta Maurice Ravelekin obrekin batera eskainiko dugu.

Xabier Lizardik (Jose Mari Agirre Egaña, Zarautz, 1896, Tolosa 1933), 1932ko Biotz Begietan olerki liburuan argitaratu zuen Illeta poema "Biotzean min dut" (Illeta-eresi) tituluarekin, "amona zanaren eortz egunean" sarrera jarri zion poemari Lizardik eta horretan oinarrituta Escudero 1952an Illeta oratorioa konposatu zuen. Benetako maisu lana, Jorge Oteizak 1955an Escuderoi idatzi zion moduan: "Quiero expresarte mi admiración extraordinaria. Nada hay comparable a tu Illeta, ni en nuestra literatura, ni nuestra música, ni nuestra plástica. Todo lo que teníamos desaparece ahora como algo provisional, algo que necesitaba y esperaba esto. [...] Ahora podemos hablar de Renacimiento Vasco, y es por tu Illeta solo. Ha sido la más grande emoción de mi vida que he sentido como artista vasco. En tu Illeta he muerto y he resucitado". Beste hitz batzuekin, lilura bera adierazi zuen Juan San Martinek: "Gure erriaren illeta da, Euskalerrriaren bizi-eresia; bai Joxe [Artetxe], sinistu zazu. Mundu guzian zabaldu bear litzateke gure erriaren ezugarri. Izan ere, ori da Escuderoaren Illeta, Euskalerrriaren muñetatik sortutako ereserkia, bere kanpai ta guzi. [...] Patxi Escuderoaren musikak biotzeraño sakondu zidan Lizardiren poema, neri ere barruak kementsu esaten zidan: 'Biotzean min dut, min etsia, negar ixilla darion miña'."

Entramos en el periodo veraniego, que reúne grandes conciertos con unas vacaciones, y lo hacemos después de haber tenido el honor de cantar el 21 de junio en el acto de entrega del premio Manuel Lekuona de Eusko Ikaskuntza a nuestro fundador, José Luis Ansorena. Periodo de trabajo y descanso con la vista puesta en el nuevo curso. En esta coda sin fin, el nuevo curso está ahí, Musika Tailerra y las corales Orereta Txiki, Orereta y Oinarri lo iniciarán el 10 de septiembre. Más de doscientas chicas y chicos entre 6 y 17 años retomarán su formación coral. Ese es el futuro, nuestro futuro y una las razones de vitalidad de Andra Mari Abesbatza.



CONCIERTO SINFÓNICO DE MUSIKASTE 1989 (19/05/1989)



CORAL DE L'ESCOLA DE MÚSICA DE MANLLEU ETA ORERETA TXIKI, ORERETA ETA OINARRI ABESBATZAK 2012/04/30



MANUEL LEKUONA SARIA 2012/06/21

## A.M.A.ren FITXA ILLETAREN GRABAZIOAK

Bi dira gaur egun arte egin diren Francisco Escuderoaren Illetaren grabazioak. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Donostiako Orfeoiak, Odon Alonso zuzendari, 1984an egindakoa eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Andra Mari Abesbatzak, Juanjo Mena zuzendari, 2002an grabatutakoa.

Euskarri ezberdinetan gordeak, hauek dira bi grabazio hauen fitxak:



[Donostia] : Elkar, D.L. 1984. - 1 disco (46 min., 34 seg.): 33 rpm, estéreo ; 30 cm. Cont.: Gaubela; Eliza bidean; Illeta; Kanposantu bidean ; Eorzketa eta azken agurra. Int.:Orfeón Donostiarra; Orquesta Sinfónica de Euskadi; solista baritono: Santos Ariño; dir. coro, Antton Aystearan; dir. Odon Alonso. Grab. Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián. Ref.: ELK-67, Elkar.



[Barcelona] : Marco Polo & Naxos Hispánica, D. L. 2002. -- 1 disco (CD-DA) (58 min., 57 seg.) : estéreo, DDD ; 12 cm. Int.: Ricardo Salaberria, baritono; Coral Andra Mari, dir. José Manuel Tife ; Orquesta Sinfónica de Bilbao; dir. Juan José Mena. Grab.: Palacio Euskalduna de Bilbao del 25 al 27 de marzo de 2002 Ref.: VAM-12, Naxos Ibérica

BABESLEAK







## JOSE LUIS ANSORENA PREMIO MANUEL LEKUONA

En medio del calor y el reconocimiento de familiares, amigos, personalidades del mundo de la música y ciudadanos en general, nuestro fundador, José Luis Ansorena Miranda recibió el premio Manuel Lekuona de Eusko Ikaskuntza, coincidiendo con el Día Internacional de la Música, el 21 de junio, en una ceremonia celebrada en el Salón del Trono de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El premio Manuel Lekuona, representado en una escultura creada al efecto por Remigio Mendiburu, constituido en 1983 por Eusko Ikaskuntza en reconocimiento a personalidades de la cultura y la ciencia por su trayectoria y aportación al acervo común. *"La obra total de Jose Luis Ansorena acredita muy amplios méritos"*, subrayó en el momento de la entrega del galardón José Mari Muñoz, Presidente de Eusko Ikaskuntza, junto a su trabajo como *"musicógrafo, compositor, organista y director de coros... es un premio Manuel Lekuona modélico por su forma de ser"*. El acto comenzó con la intervención de Jose Inazio Ansorena, sobrino del galardonado, además de músico y musicólogo, autor de la biografía que Eusko Ikaskuntza dedica a los galardonados con el Manuel Lekuona; Jose Inazio hizo una emotiva intervención en la que presentó la vida y la obra, el espíritu de José Luis Ansorena. Tras la presentación, se pudo ver el vídeo elaborado por Andra Mari Abesbatza, con el apoyo de Eresbil y la financiación de Kutxa, en el que el galardonado explicaba cómo nació su pasión por la música.

En el momento de recibir el premio, José Luis Ansorena Miranda, visiblemente emocionado, quiso comenzar su agradecimiento con unas palabras de recuerdo a Manuel Lekuona, con quien trabajó. El músico y capuchino quiso *"agradecer a tantas personas queridas la ayuda que siempre he recibido"*. No se olvidó de su amigo José Antonio Arana Martixa, galardonado en 2010. Su *"agradecimiento más profundo"* fue para Erreterria, *"udaletxea eta erreteritarrak denak"*, por *"la constante ayuda que he recibido de todos los renterianos, especialmente los de la coral Andra Mari en todas mis actividades"*. Y fiel a su espíritu concluyó su intervención con una mirada al futuro: *"estos años mi tarea se ha dirigido a la digitalización de más de mil melodías inéditas, recogidas por Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue. Ahí está a disposición de la sección de música de Eusko Ikaskuntza"*.

Orereta Abesbatza, la coral juvenil, al inicio del acto y Andra Mari Abesbatza, en la culminación, tuvieron el honor de cantar en el acto de reconocimiento a su creador José Luis Ansorena. Orereta Abesbatza interpretó *Izar Edera* de Francisco Escudero y Andra Mari Abesbatza interpretó tres piezas especialmente significativas para Ansorena: *Ojos claros, serenos*, la obra de Aita Donostia versión en euskera de *La mort del rossinyol* y *Atabala ta txistua*, del propio José Luis Ansorena.

Creador de los coros que constituyen Andra Mari Abesbatza, las corales Andra Mari, Orereta Txiki, Orereta y Oinarri, el reconocimiento a la obra de José Luis Ansorena Miranda ha llenado de satisfacción a los componentes y al conjunto de Andra Mari Abesbatza. Dentro de su dilatada y fructífera trayectoria, José Luis Ansorena ha destacado como investigador, creador musical, intérprete de órgano y director y creador de coros y sobre todo por su labor a favor de la protección y difusión del patrimonio musical vasco. Partiendo de Andra Mari Abesbatza, constituida en 1966, en 1973 creó Musikaste y un año después ERESBIL, Archivo Vasco de la Música.

## MUSIKAREN MAGOA



Jose Luis Ansorenari Manuel Lekuona saria emateko ekitaldian, ekainaren 21ean, estreinatu zen *"Jose Luis Ansorena, musikaren magiak harrapatua"* dokumentala, Andra Mari Abesbatzak ekoiztua, ERESBILen laguntzarekin eta Kutxak finantzatua, Kutxa Gizarte Ekintza bitartez. Hamabi minutuko bideo bat da; Ansorenari urtarrilean egindako elkarrizketaren zati hautatu batzuek osatzen dute bizkarrezurra, eta horri gehitu zaizkio Eresbilen eta kaputxinoen Donostiako elizan egindako grabazio zatiak, Eresbilen jasota dauden argazki eta grabazioetako batzuk eta Andra Mari abesbatzaren musika.

Konpainia onean egin zen estreinaldia. Ekitaldiaren hasieran Jose Inazio Ansorenak osabari buruz idatzitako biografiaren zertzelada batzuk eman zituen; haren bizitzako pasadizoak, anekdotaz haratago Jose Luisen izaera eta jokamoldea ulertarazten dituzten giltzak.

Ondoren etorri zen dokumentala; hemen Ansorenak bere hitzez azaltzen ditu bizitzako mugarriak. Hamalauren bat urteko gaztetxo zela kaputxinoetan sartzea erabaki zueneko, eta aukera horrek bere aitari, Isidro Ansorenari, ekarri zion nahigabea. Goi mailako ikasketa musikalen zapuztea. Andra Mari Abesbatzaren ibilbidea, askoren arteko talde lana azpimarratuz. Musikaste nola jaio zen 1973an, eta urtebetera Eresbil; artxibo hau osatzeko egindako bilaketa lana Espainian zehar. Aita Donostiaren arrastoan jarri eta hari buruzko monografia idatzi zueneko. Eta bukatzeko, Ansorenak *"Andra Mari Abesbatza 1966-1991"* liburuan idatzi zuen poema hartako galdera errebotatuz, musika: terapia ala pozoiz? dilemari erantzuna. Ahaztu gabe, tartean, mendiari –Urbasa ezinbestekoari- egindako aipamena.

Urtarrilean burututako grabazioaren lagin bat besterik ez da; hamar orduko jarduna hamar minutura ekarrita. Gauza da Ansorena kontalari aparta dela; diskurtso ondo egituratua dauka, hizketa dotorea, aberatsa adierazkortasunean, eta aldi berean entzulea konplize bihurtzen duten keinuz zipriztindua.

Adierazpide horiek denak nortasun sendo, koherente bat marrazten dute. Musikaren pasioak bizi duen gizonaren erretratoa. Grina hori beste askori –izan kantari edo entzule- kutsatu dien zuzendaria. Eta horri eusteko, urratsez urrats ingurune bat sortu duen ekintzailea. Musikaren magiak harrapatutako gizona, musikaren mago bilakatuta